

argitalpena

Elgoibarko familia kolonbiar baten istorioa 'Barren' herri aldizkarian

Luis Ernesto Alfaro eta Elsi Martinez senar-emazteak, kolonbiarrak dira, baina Elgoibarren bizi dira duela bi urtetik. Bost kideko familiak Kolonbia utzi eta Euskal Herrira etorri behar izan zuen. Izan ere, Luis Ernesto Alfaro gerrilla batek bahitu zuen, eta erreskatea erdi ordainduta utzi eta gero, herrialde hori utzi behar izan zuen.



Argitaratzailea: Izarra kultur elkarte

motorra

Autoen leihoak ez izozteko, gatza erabili

Neguko goiz hotzetan autoaren leihoak izozturik ikustea ez da batere harritzekoa. Egunotan ere hori erraz gertatu da Euskal Herriko leku askotan. Izozteak sahiesteko, leihoei eman igurtzi bat ur beroaz eta gatzaz bustitako oihalarekin. Hala, zailagoa izango da izoztea. Nolanahi ere, gogoan hartu gatz asko jarri behar dela oihalean.



EGUNKARIA

'Ikasola eta gurasoak'. Bihar, Ederrenan, Zurriolaren eskutik.
'Trakaolatarrak'. Azaroaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, Ederrena zinemari, Gilkitxaroren eskutik.
OÑATI. 'Bambulo'. Gaur, Santa Ana antzokian, 22:30ean.
TAFALLA. 'Ex simbols'. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Peineta taldearen eskutik, Kultur Etxean.
URRETUXU. 'Manolito gafotas'. Gaur, gaueko 22:00etan, Pagoeta antzokian, Ados taldearen eskutik.
VILLABONA. 'Txerrikeriak'. Gaur, 22:30ean, Agerreren eskutik.
ZORNOTZA. 'Bancarrotta'. Gaur, gaueko 21:00etan, Zornotza aretoan, Legaleon T taldearen eskutik.

bertsolaritza

ANTSOAIN. Amaia Agirre, Aitor Mendiluze. Gaur, Txinparta elkartearen, gaueko 21:30ean.
BERA. Bertso-afaria: Jexus Mari Irazi, Xebastian Lizaso. Bihar, Agerra elkartearen.
BILBO. Bertso-afaria: Andoni Egaña, Igor Elortza. Gaur, gaueko 22:00etan, Kafe Antzokian.
DONEZTEBE. Xebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano. Gaur, eguerdik 12:00etan, plazan.
ETXARRI ARANATZ. Txapelketa Nagusia (final aurrea): Irazu, Lujanbio, Arzallus, Sorozabal, Silveira, Elustondo. Bihar, Udal pilotalekuan, arratsaldeko 18:00etan.
HONDARRIBIA. Xebastian Lizaso, Imanol Lazkano. Gaur, Muara tabernan, gaueko 21:00etan.
LASARTE-ORIA. Bertso-paper musikatuak. Gaur, Jalgi kafe-antzokian, arratsaldeko 20:45ean, Ttakuneko 10. urteurrena dela eta.
MUNGIA. Bertso-afaria: Mañukorta, Anjel Mari Peñagarinao. Gaur, Caza y Pesca txokoan, gaueko 21:30ean.

dantza

AZPEITIA. Sahatsa taldea. Bihar, 22:30ean, Izarraitz pilotalekuan.
ERMUA. 'Sutargi'. Gaur, 22:15ean, Aukeraren eskutik, Zinemari.
Euskal dantzak. Bihar, 19:00etan, Cardenal Orbe plazan.
GERNIKA. Kriskitin dantza taldea. Bihar, arratsaldeko 19:15ean,

musika

Kepa Junkera Gaur, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan (22:30ean)

KEPA JUNKERA MUSIKAGILEA

Xabier Martin | DONOSTIA

Trikitixa tradizionalaren berri-tzaile izendatu dute behin baino gehiagotan Kepa Junkera. Bere azken disko *Maren* entzunda ez da harritzekoa halakoak adieraztea. Gaur, Azpeitian bere azken lanarekin gozatzeko aukera izango da, 22:30etik aurrera.

■ **Maren azken lanaren aurkezpen lanetan zabilta buru-belarri. Gustura zaude diskoaren emaitzarekin?**

Bai, oso gustura nago. Izan ere, beharbada nire diskorik landue-na hauxe da. Orain, asko atsegin dudan zatia dator: lana erakustearena, jendearekin harremana izatearena, ...

■ **Aurreko lanei emandako harrera ona jasotzen ari al da *Maren*?**

Oro har, jendea atsegin handiz ari da hartzen diskoa. Zalantzarik gabe, oihartzun handiena lortzen ari da. Aurrekoa zabal-tzeko ate asko jo behar izan genituen. *Maren*-ekin berriz, segituan zabaldu dira ate horiek. Si-netsita nago, gero eta publiko zabalagoa dagoela egiten dudan musikaren atzetik.

«Entzuleari ezustekoa eskani behar zaiola uste dut»



EGUNKARIA

■ **Trikitixa tradizionaletik abiatuta garatu duzun estilo horren balioa berresten du horrek?**

Baietz esango nuke. Nire musika propioa sortzearen alde borrokatzen jarraitzen dut. Jakina da musikaren barruan zerbait erabat berria dena sortzea ia ezinezkoa dela, baina hala ere, originaltasunaren bila nabil beti. Izan ere, uste dut, entzuleari ezustekoa eskaini behar zaiola.

■ **Seguruenik ere ez duzu aukerarik faltako *Maren* nahi beste erakusteko, ezta?**

Egia esan kontzertu zerrenda luzea dugu aurretik. Lehenik Euskal Herrian ariko gara, besteak beste, Leioan, Getxon, Barakaldon, Ordizian, Donostian edo Bilbon. Datorren urtean berriz, atzerrira aterako gara. Dagoeneko lotuta ditugu, Japoniara, Estatu Batuetara, eta Europako hainbat herrialdetara joateko bidaia.

■ **Eta bestelako proiekturik ba al duzu esku artean?**

Badago zerbait, batez ere, beste taldeentzat produkzio lanetan aritzeko. Baina oraindik ez dago gehiegi zehazterik.

Euskal Herria museoa.

IRUN. Irun hiriko XI. Aurreku txapelketa. Bihar, arratsaldeko 18:00etan, Amaia KZn.

LEGAZPI. 'Euskal Herriko Zentro Extremeñoetako dantza taldeen erakustaldia'. Bihar, 16:00etan, Bikuña kiroldegian.

MIARRITZE. Le ballet national Hongrois. Bihar, arratsaldeko 20:30ean, Gare du Midi aretoan.

hitzaldiak

BERA. 'Historian, Nafarroak literaturan eman duena'. Gaur, arratsaldeko 18:30ean, Joxe Migel Bidadorren eskutik, Jamotenean.
DONOSTIA. 'La mediación familiar en los procesos de separación y divorcio'. Gaur,

arratsaldeko 19:00etan Kutxaren hitzaldi aretoan (Andia kalea).
'La medicalización de la vida'. Gaur, arratsaldeko 17:00etan, Txema Pierolaren eskutik (Sumendi), Tenencia de alcaldía aretoan.
ERRETERIA. 'Palestina atzo, gaur, ...bihar?'. Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Txintxarri elkartearen, Thamer Birrawiren eskutik.
GASTEIZ. 'Astronomiari buruzko hitzaldia'. Bihar, Javier Armentiares eskutik, Aldaben.
GERNIKA. 'Humboldt Gernikan', 'Humboldt eta Euskal Herria'. Bihar, Euskal Herria museoa, 18:00etan, J.A. Arana eta Iñaki Irigoienaren eskutik.
HAZPARNE. 'Autodeterminazioa eta Euskal Naziotasun Agiria'. Gaur, Xuriatean, 21:00etan.

IRUÑEA. 'Plaza del Castillo, Sociedad democratica y referendum'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Juan del Barrioren eskutik, Navarrería zentroan.

'Egungo garapen eredu eta ondorioak gizarte harremanetan'. Azaroaren 19an, astelehenean, Mario Calisto Kolobiako errefuxiatuaren eskutik, NUPeko aulategian, 18:00etan.
LIZARRA. 'Karlistadak'. Gaur, kiroldegian, Xabier Arzallusen eskutik, arratsaldeko 20:00etan.
ZARAUTZ. 'Un cierto estilo universitario'. Gaur, 19:30ean, Olerti Etxean, Felix Goñiren eskutik.

ikus-entzunezkoak

BAKAIKU. 'La impunidad de la

Guardia Civil' hitzaldia eta bideo emanaldia. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Elkartearen, Pepe Reiren eskutik.
DONOSTIA. 'Antiglobalizazioa' bideo emanaldia. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Ikatz Biltokian, (Ikatz kalean).
'Adarbakar txikiaren kondaira' haurrentzeko filma. Bihar, arratsaldeko 17:00etan, Lugaritz kultur etxean.
URRETUXU. 'Euskal Herriko mendiak' diaporama. Azaroarearen 19an, astelehenean, Jesus Mari Etxanizen eskutik, Kultur Etxean, arratsaldeko 20:30ean.

bestelakoak

ANDOAIN. 'De las historias de

amores difíciles o imposibles' ipuin kontaketa. Bihar, arratsaldeko 17:00etan, Marta Escudororen eskutik.
DONIBANE GARAZI. Kabaret gaualdia: dantzak, ipuinak, musika, ... Bihar, Le Vauban zinemari, gauean.
GASTEIZ. 'Bar Puerto, bazterreko ahotsak'. Bihar, gaueko 23:00etan, Aldabe auzoetxean, Mikel Urdangarin eta Mikel Mendizabalen eskutik.
Fanzinoteka. Azaroaren 12tik 18ra, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara, Munduko Fanzin eta komikien bilduma, Araiako liburutegian.
MUTRIKU. Kiki, Koko eta Moko pailazoak. Gaur, arratsaldeko 18:30ean, Zabel kultur etxean.